

## OTSOAREN ARRAZOIAK

*Rubén Darío*

Frantzisko Asistarra, lilia bihotzez,  
arimaz kerubina, zerutiar hitzez,  
gizaseme goxoa, ttipien denekin:  
aurrez aurre zegoen piztizar batekin.

Gubbioko Otsoa zen animalia,  
ikaragarrizkoa, hiltzaile, lapurra,  
hortzak erasokor, begitan txarkeria,  
herritarren izua, guztien beldurra.

Amorruz suntsituak zituen bazterrak,  
heriotza ta kalte ugari emanaz,  
bai artalderik ere hondatu ankerrak,  
arkume ta artzainak orobatsu janez.

Txikituak zituen ehiztari azkarrak,  
burdinez armatuak. Eta zakurretan  
birrinduak zituen biziki suharrak,  
beste hainbat, antxume eta bildotsetan.

Frantzisko badoa,  
bilatu du otsoa;  
bere gordelekuan zaio agertu  
piztizarra, haitzuloetatik gertu.  
Braust oldartu zaio bere ankerrean.  
Frantziskok, ahots eztiz, eskua airean,  
tinko diotso, lasaia:

—*Bakea, Otso anaia!*

Begira jarri zaio animalia  
zakuki latz-latzeko fraideari,

bigundu du bere zakar-aurpegia,  
laga ahutzak erakusteari.

Eta esan: —*Ongi da, Frantzisko anaia!*

—*Nolatan gero! ihardetsi fraideak:*

*Izua, heriotza: hori al duk gaia?*

*Hori al dik agintzen bizibideak?*

*Isuri duk heure deabru-muturraz*

*odola, izua duk eta samina zabaldu,*

*nekazariak kexutan, arranguraz*

*ezarri, Jaungoikoaren kreaturak abaildu,*

*min-garrasiaren biziz.*

*Baina hala eta guztiz,*

*ez ote duk hoztuko hire herra?*

*Ala ote haiz infernutakoa?*

*Luzbel edota Belialen gerra*

*betiko horretan sartutakoa?*

Otsotzarrak, apal: —*Gogorra da aroa,*

*gogorra gosea! Basoa izozturik,*

*ez dago bazkarik. Abere bila noa...*

*inoiz abere eta abeltzain jan dut nik.*

*Odolaz zer? Ehiztaririk badut ikusia*

*zaldi gainean, aztorea eskumuturrean,*

*basurde, hartz, oreinaren atzetik ibilia;*

*badut askotxo ikusia, odola soinean,*

*turuta-soinu ozenen oihartzunera,*

*Jaunaren animaliak sakailatzen,*

*oinazetzen. Ez gosea kentze aldera,*

*bakar-bakarrik ehizean, jostatzen.*

Frantziskok erantzun: —*Badu, bai, legami txarra*

*gizon-emakumeak,*

*bekatuan da jaiotzen —hori ezbeharra!—*

*Garbia du, aldiz, arima animalia sinpleak.*

*Gaurdanik aitzina*

*izanen duk jatena.*

*Utzi, oster, baketan*

*artalde ta jende, herri honetan.*

*Jainkoak leun beza hire basa-gaia!*

*—Ongi da, Asisko Frantzisko anaia!*

*—Dena lotu eta askatzen duen Jaunaren aurrean,  
luza iezadak heure hanka, hitzemanaren bermean.*

*Otsoak luzatu zion hanka anaiari,*

*Frantziskok bere eskua animaliarri.*

*Sartu ziren herrira. Harritua zen jendea!*

*Nekez ematen zion ikusiari fedea.*

*Fraidearen atzekoa izanik ere otso,  
etxeko txakurra antzo, edota arkumea,*

*burua makurturik zebilen, zeharo mantso.*

*Frantziskok, herriko jendea bilduta,  
predikua egin zien, esanez:*

*—Hona ehiza eder, arrapatuta.*

*Nirekin biziko da hau, otso anaia;*

*zin dagi, ez dugula izanen etsaia,*

*ez duela berriz odolik isuriko.*

*Baina zuek emandakotik da biziko,*

*Jainkoaren animalia gaixoa. —Bai!*

*—erantzun herriak, gogotik eta alai.*

*Buru-isatsei eraginez*

*poza ageri zuen zinez*

*animalia onak; eta ondoren*

*sartu zen komentura, lagun Frantziskoren.*

*Baketuta, lasai otsoa, aldi batean,*

fraideen etxe santu hartan bizi zen.  
Eta korukoen salmo-kantak entzutean  
begi argiak zitzaizkion bustitzen.  
Hamaikatxo jolasetan jostaria,  
jolas-laguna zuen sukaldaria.  
Frantzisko Asistarra ari zenean otoizka,  
haren sandalia zaharrak otsoa miazka.  
Komentutik atera,  
eta ibiltzen zen mendian, jaisten ibarrera.  
Etxeetan gogoz zioten ematen bazkatzeko,  
otzan ageri zen, ehiza-txakurraren antzeko.

Halako batean,  
Frantzisko herritik aldendua zenean,  
otso eztiak eta mantsoa, otso jator hura,  
komentua utzi, eta itzuli zen mendira,  
eta berriz entzun ziren ulu eta arrangura.  
Kezka eta beldurra itzuli ziren herrira;  
artzainak bezala herritarrak denak  
ikaraz zebiltzan, izualdiak jota;  
ez zuen balio armak, ez kemenak,  
amorrutan zebilen piztiaren kontra;  
Asaldatua zen arras,  
kaltea besterik ez zuen burutan,  
irudiz Molok, Satanas,  
horien suaz baitzirudien sutan.

Herrira itzulirik berriro Frantzisko santua,  
bazen inguruetan kexua, bazen lantua;  
piztiaren okerren salaketan zetorkion jendea,  
agertuz dena, minez jasana, eta galdua,  
zorigaiztoko otso deabruaren zuzenbidea.  
Frantzisko Asiskoa

haserretu egin zen, iluna bekoskoa.

Joan zen mendira,

otso gezurti odoltzalearen bila.

Kobazulo aurrean aurkitu zuen piztia.

—*Munduaren aita den Jainkoaren izenean eskatzen diat, otso maltzur hori, heure agiria:*

*Zergatik erori haiz berriro okerrenean?*

*Erantzun, Jainkoarren!*

Mintzatu zen animalia, barrua irakitan,

bitza ahoan, herioa begitan:

—*Frantzisko anaia, zaude hor geldirik...!*

*Komentu hartan lasai nengoelarik,*

*herrira joanez,*

*emandakoa hartuz nintzen ni pozik,*

*baketsuki janez.*

*Baina horra non etxe guztietan*

*nahusi Amorrazio, Haserre, Bekaizkeria,*

*horra ageri aurpegi denetan*

*gorrotoa, lizunkeria, gezurra, bezkeria.*

*Ikusia dut senideen arteko borroka bizia:*

*ahulenek zuten galera, gaiztoenek irabazia,*

*arra emeari, emea arrari zitzaion zakurra;*

*eta halako batean denek eman zidaten egurra.*

*Apal nenbilen, haien esku-oinak miazkatuz,*

*zure lege santuak nituen neure bide,*

*Jaunaren izaki guztiak senidetzat hartuz:*

*senide jendeak oro, idiak senide,*

*senide izarrak eta harrak ere aitortuz.*

*Egurtuta, beraz, eta kanpora iraitzia,*

*iraina zitzaidan haien barrea, ur irakina,*

*eta piztu zen berriz ene baitako piztia,*

*eta berriro itzarri otso gaiztoaren grina,*

*hala ere, jende zital horien aldean, duina.  
Eta betiko borrokari ekin nion atzera,  
neure burua babestu eta neuk elikatzeko,  
hartzak egiten duena, basurdearen antzera:  
besteren bat akabatu behar; bera bizitzeko.  
Laga ni mendian, laga harkaitz-lekuan,  
laga bizitzen neure askatasunean;  
izan ondo, Frantzisko, zeure komentuan  
jarraitu zuk zeure santutasun-bidean.*

Asisko santuak ez zion hitzez eraso,  
baina begiratu sakonez egin zion so,  
eta alde egin zuen, malkoak begietan.  
Jainko betikoari zion otoitz egin aurrena,  
hegan joan zen erregua basoko haizetan;  
Honelaxe zen: *Aita gurea, zeruetan zarena...*